102. zenbakia - 2011ko martxoa

artzape

GETARIARRON TOPAGUNEA

HARRITAN BLAI

]PILOTA-TXAPELKETA

KORRIKA 17]

Eskualdeko senegaldarrak

TXOKO
ERRETEGIA



kaia gainean. Tlf. 943 140 539

OSTOLAZA
EDARITEGIA
kaxuelitak eta
plater konbinatuak
Elkano, 33 Tel.: 943 140 214

Saiazgetaria
HOTELA
BILERA GELA DAUKAGU
Roke Deuna 25
20808 Getaria
Gipuzkoa
T 943 140 143
F 943 140 345
E info@saiazgetaria.com
W www.saiazgetaria.com

SAN PRUDENCIO
JATETXEA
JATETXEA - ERRETEGIA
20808 GETARIA
(ERREPIDETIK 600 METRORA)
IKUSPEGI BIKAINAK
943 14 06 27 - 943 14 04 11

OSTOLAZA
ANAIAK
Tailer mekanikoa.
Soldadura eta kaldereria.
Txoritonpe industri gunea, 20.
lonja, portua z/g
20808 Getaria
Tel.: 943 140 110

kutxa

Antxoak eta Bakailaoa
ITSAS
MENDI
www.maisor.com
gutiziak
Kaia, z/g : Tel. 943 140 993 : GETARIA
Eusko Gudari, 5 : Tel. 943 248 774 : ORIO

BABEXA
Getariako dendari elkartea

ENBATA
Kale Nagusia, 14 - DONOSTIA 943 424797

GIROA TABERNA
·Plater konbinatuak
·Bokatak
·Pintxo goxoen aukera
Kale Nagusia, 24 - GETARIA - Tel.:943 140 800

POLITENA
GURE BEREZITASUNAK:
• Aste egunean:
Eguneko Menua
• Jai egun eta Asteburuetan:
Luxuxko Pintxoak,
Bokatak eta Razioak.
• Eramateko eskaerak:
• Wi-Fi zerbitzua.
GETARIA
Kale Nagusia, 9
Tel. 943 140 113

ERROTA



OPIL - OKINDEGIA
Elkano, 7
Tel.: 943 140 017

KAIA - KAIPE JATETXEA
General Arnao, 4 - 20808 GETARIA (Gipuzkoa)
Tfno. 943 14 05 00 • Fax 943 14 01 21 • www.kaia-kaipe.com

HARRALDE
GETARIA NAGUSIA,17
14 07 04

"Martxoko ostotsak, berrogei eguneko negua"

artzape

102. zenbakia

2011ko martxoa

]5/Txapakalezka: +/=/-

]6-7/Getarian zer berri?

Korrika 17
Pilota-Txapelketa

]8-9/Erreportajea: *Harritan Blai*

]10-11/Argazki-txokoa:
2011ko inauteriak

]12-15/Elkarrizketa:
Ida Camara eta Ousmane Ba,
Yaakar Urola Kosta elkarteko kideak

]23/Akordatzen:
Sare-konpontzaileak

artzape
Eskualtxeta kulturgunea
Krixketaneko Iturrigaina

Tel.: 943 00 05 48
artzape@topagunea.com

Gure Txeru Elkartea

[argitaratzailea] Gure Txeru Elkartea [koordinazioa] Amaia Iribar eta Maider Ostolaza [lan taldea] Izaskun Larrañaga, Monika Uzkiza, Ane Azkue, Josune Urresti, Kepa Iribar, Imanol Iribar, Zigor Saizar, Amets Etxabe, Irantzu Ezenarro, Aitor Irigoien, Beñat Gereka, Mikel Mugika, Getariako Bertso Eskola, Getaiko Gaztetxia [kolaboratzaileak] [argazkiak] Artzape [publizitatea] Artzape [inprimaketa] Gertu [tirada] 1150 ale [lege gordailua] SS-504/01 [ISSN] 1578-469X

Getariako Udalak, Foru Aldundiak eta Eusko Jaurlaritzak diruz lagundutako aldizkaria

gutunak

Aitorri

Bi norabideren artean bat aukeratuta joan da herrian ia zazpi urtez erretore lanetan aritutako Aitor Emazabel hondarribitarra. Artzapen utzi dizkigu idatzita herritarrei zabaldutako hitzak, eta hor geratuko dira betirako, Aitor gure bistatik joan bada ere. 2001ean etorri zen herrira, nahiz eta Zumaia zuen bizileku, eta 2008an joan zen Azpeitira; Getariako oroitzapen oso onak eraman zituen berekin.

Ibilbide luze horretan, Artzape aldizkarian bere ongietorria nahiz agurra jorratu genituen, baina hori baino gehiago, aldizkari honetako kolaboratzaile ere izan zen. Gustuko zuen idaztea, eta taldeak egindako afariren batean ere izan genuen bere presentzia. Iritzi guztiak entzuteko zabalik zituen belarriak, baita denei erantzuna emateko mingaina ere.

Gaztea zein alaia, horrela gogoratuko dugu herritarrok Aitor, eta baita Artzapeko kideok ere.

ARTZAPE

Abertzaleak omen

Duela egun batzuk, gure eskaeraz, 2010ean Getariak jaso zituen bisitarien kopurua eta jatorria ezagutu genuen.
Horrela sailkatzen dira: batetik Estatu Espainoleko bisitariak daude, autonomia erkidegoka sailkatuak, non "Euskadi"-ko eta "Navarra-Nafarroa"-ko bisitariak bereizita kontatzen diren. Bestetik, atzerriko bisitariei dagokionez, hauek jatorriko estatuaren arabera sailkatzen dira, Lapurdi, Behe-Nafarroa eta Zuberoatik etorritako bisitariak frantsesak bezala kontsideratuz.

Anekdotikoa dirudien gertaera honek kezka sortu du gure artean, ikusirik beren burua abertzaletzat duten gure agintariek, inongo erreparorik gabe onartzen eta barneratzen dutela Euskal Herria ukatzen duen banaketa institucional inposatua.

Non dago Getariako Udala kudeatzen duen PNVk aldarrikatzen duen Euskal kontzientzia? Non Euskal Nazio ikuspegia?

Kezka ere, hori guztia, Getariako Udala turismo plan estrategikoa lantzen ari denean gertatzen ari baita.

Ados gaude Getariak turismoa sustatzeko, beste arlo batzuetan bezala, plan estrategiko bat behar duela, baina inolaz ere ez hari horiekin josita ko plan bat, non Euskal Herriaren aitortza ukatzen den.
Euskal Herria onartzen eta aldarrikatzen ez duen turismo edo beste edozein arlotako plan batek, ez du inoiz Getariako Ezker Abertzalearen oniritzia eta babesa izango. Euskal Herriaren biziraupenerako ezinbestekoa baita naziotasuna herriko esparru guztien lanketan oinarri izatea.

Karmele Iribar, Iker Azkue eta
Iñaki Mondragon

Getariako Hautetsi Independentistak

Zure gutuna Artzapen argitaratzea nahi baduzu, Txeruko postontzian utzi, Eskualtxetara ekarri edo artzape@topagunea.com helbidera bidali zure izen-abizenekin. Gutunak gehienez 200 hitz izan beharko ditu eta luzeagoak direnak mozteko eskubidea izango du Artzapek. Ez dugu testu iraingarririk onartuko eta Artzapek ez du bere gain hartuko argitaratzen diren iritzien gaineko erantzukizunik.

lehiaketa

SARIA:

Eskainitako otar eder bat

artzape Lehiaketa

URTARRILEKO ERANTZUNA:
Itsas armadako ikuskaria

URTARRILEKO IRABAZLEA:
Mª Francisca Berasaluze

MARTXOAKO GALDERA:
Zein zen Gipuzkoako eskabetxagile nagusienetakoa?

Artzapen bazkidea bazara eta erantzuna baldin badakizu, e-mailez (artzape@topagunea.com), gutunez (kale nagusia 1-3 z/g) edo deitu (943 000 548) APIRILAREN 25a BAINO LEHEN.

Ekaitz
Balenciaga Iribar
PROIEKTU ETA ERREFORMAK
GREMIOEN KOORDINAZIOA
943 005 861
635 757 820

IRIZABAL,S.A.
ARRAINAK
IPAR KAIA Z/G 20808 GETARIA (GIPUZKOA) TEL.: 943 89 60 10 FAX: 943 14 00 30 C.I.F.: A-20090981

Txapakalezka

Aitor Irigoien, Beñat Gereka eta Mikel Mugika

Entsegu-lokalak

Iazko azaroko alean, - atalean aipatu genuen Udalak herriko musika-taldeei eskola-aretoan entseguak egiteko baimena kendu ziela. Hori horrela, herriko hainbat musika-talde non entseatu ez zutela geratu ziren. Eta gisa horretako azpiegiturarik gabe, musika-taldeek zaila izaten dute aurrera egitea.

Ordutik hilabete batzuk igaro diren arren, antza denez, arazoari irtenbidea eman diote. Izan ere, hemendik aurrera, Udalak autobus geltokian, informazio-bulegoaren ondoan, dagoen erakusketako gela bat erabiltzen utziko die herriko musika-taldeei. Berri pozgarria da hori aipatu musika-taldeentzat eta musikazale ororentzat. Gogoratu beharrekoa da mundu-mailako talde ezagunenek ere lokal txikitan eta lagun artean joz egin zituztela euren lehen urratsak.

Herritarren partaidetza

Herrian, kulturaren inguruko hainbat ekitaldi eta lehiaketa antolatu ohi dira urtero. Horien artean, hilabetean behin ELAN-Euskadik antolatzen duen zine-foruma, inauterietako kartel-lehiaketa edota literatur tailerra daude. Guztiak ere oso jarduera interesgarriak direla iruditzen zaigu, eta horiek antolatzeko lan eta ahalegin handiak egiten direla.

Ondoren, ordea, partaidetza nahiko baxua izan ohi da, bereziki helduei dagokienez. Aurtengo inauterietan, helduen atalean hiru lan bakarrik aurkeztu zituzten. Literatur tailerreko taldea ere beste herrietako jendeari esker osatzen da. Zine-forumean, film zinez interesgarriak proiektatzen diren arren, partaidetza nahiko kaxkarra izaten ari da aurten. Halako ekintzarik ez dagoenean, ez egotea kritikatzen da. Antolatzen direnean, ordea, non sartzen da jendea? Aurtengo neguan herriko kaleak hutsak egon dira. Aipatu ekitaldietako aulki asko ere bai…

Txakur-kakak

Aspaldiko arazo bat da, baina horrek ez du esanahi azpimarratu behar ez denik. Herrerieta kaleko begiralekuan (miradorean) txakur-gorotz ugari azaltzen da egunero. Bertatik Gaztetape hondartzako olatuei edo arrokei begira igaroz gero, txakur-kaka zapalduz amaitzeko probabilitate handiak ditu edonork. Tristea iruditzen zaigu halako leku politean gisa horretako arazoak aurkitzea.

Afera honetan, ia beti txakurrei bota ohi zaie errua, baina txakur horien jabeengan jarriko genuke guk ardura nagusia. Txakurra edukitzea eta kalera buelta bat ematera ateratzea ondo dago. Baina txakurrak egiten dituen gorotzak jasotzea ere jabearen lanetariko bat da. Begirune eta zentzu komuneko gai bat da. Kaka zapaltzeak zorte ona dakarrela dio esaerak… baina inori ez zaigu gustatzen halakorik gertatzea.

XXXIII. Banakako Pilota Txapelketa

Joan den otsailaren 27an jokatu ziren Gure Txeruk antolatutako Haurren XXXIII. Banakako Pilota Txapelketaren finalak, Sahatsaga kiroldegian. Lau partida jokatu zituzten guztira, hiru benjaminenak eta bat alebinena. Benjamin C mailan, Manex Aristi nagusitu zen Oier Bordagarairen aurka; benjamin B mailan, Aitor Alonsok irabazi zuen Mikel Rodriguezen aurka; benjamin A mailan, Gorka Eguren izan zen garaile Oihan Larrañagaren aurkako norgehiagokan, eta azkenik, alebin mailan, Gorka Aristi izan zen txapeldun Gorka Zenekortaren aurka jokatu ostean.

Finalean parte hartu zuten pilotariak.

X. Literatur Lehiaketa

Dagoeneko zabalik da Getariako X. Literatur Lehiaketan lana aurkezteko epea; apirilaren 15a izango da horretarako azken eguna. Lehiaketa getariarrei eta Getarian erroldatutakoei dago zuzenduta, eta bakoitzak nahi adina idazlan aurkez ditzake, betiere adinaren arabera dagokion mailan. Urtero bezala, hainbat maila izango dira, eta bakoitzean, bi modalitateko lanak aurkez daitezke: ipuina eta bertsoa edo olerkia. Gaia, berriz, librea da, eta idazlanek aurretik saritu nahiz argitaratu gabekoak izan behar dute. Bestalde, lanak Getariako Udaleko bulegoetara eraman behar dira. Epaimahaia Euskara Batzordeko buruak eta Iturzaeta Herri Eskola eta Artzape aldizkariko ordezkari banak osatuko dute. Sariak, azkenik, maiatzaren 5ean banatuko dituzte, 18:30ean.

Martxoan lehen antxoak

Aurtengo lehen antxoak martxoko bigarren astean ikusi ahal izan dira, berdelaren kanpaina amaitu bezain pronto. Ordurako bete zuten berdelaren arrantzarako Europako Batasunak ezarritako kuota. Aurten, 8.000 kilo berdel harrapatu zitzaketen, gehienez; iaz, berriz, 18.000 kiloko kupoa izan zen. Hain zuzen ere, jaitsiera hori salatu zuten arrantzaleek.

Antxoa aleak.

Futbito-txapelketa

Joan den martxoaren 11n hasi zen Floren Adrianen omenezko lehenengo futbito-txapelketa. Guztira hamar taldek hartuko dute parte aurtengo txapelketan.

Patxi Saizen disko berria

Itxaropena izenarekin kaleratu berri du disko berria Patxi Saizek getariarrak; azken lan honetan, hainbat abeslarik lagundu diote; besteak beste, Kemen Lertxundik eta Nerea Lasartek. Hamaika kantuz osatutako diskoan jorratzen diren gai guztiek itxaropena dute helburu.

Periko Kintanari buruzko liburua

Eugenio Pedro de la Hoz Quintanaren abentura asko liburu batean bildu ditu familiak, *Periko Kintanari* (Zarautz 1911-Getaria 1980); Alvaro Gurreak idatzi eta Antxon Narbaizak euskaratu du liburua. Itsasgizon eta gudariaren liburua Zarauzko eta Getariako saltokietan izango da salgai, baita Elkar dendetan ere.

Badator Korrika 17!!!!!!!!!!!!!

Apirilaren 17an pasako den Korrika 17 dela eta, Getariako Korrika Batzordeak hainbat ekintza antolatu ditu Korrika Kulturalaren egitarauaren barnean, besteak beste: arropa eta osagarrien salmenta, Mus Txapelketa (Harralde, Mahasti eta Sokoa tabernetan) eta bertso-afaria. Mus Txapelketako irabazleek Gipuzkoako Txapelketa jokatu ahal izango dute apirilaren 9an; finala Donostian jokatuko da. Bestalde, Akerregi-Txiki txakolindegian egindako bertso-afarian, Jokin Labaien, Jon Martin eta Ander Lizarralde bertsolariek hartu zuten parte, eta afariaren aurretik, triki-poteoa egin zuten herriko kaleetan. Korrika 17 apirilaren 7tik 17ra bitartean egingo da, AEK-k antolatuta, eta Trebiñu eta Donostia artean, 2.000 kilometrotik gora egingo dira lasterka, euskararen alde. Herritik 16-17ko gauean pasako da, goizaldera, eta amaiera Donostian ospatuko da.

Akerregi-Txiki txakolindegian ospatu zen bertso-afariko irudiak.

Igoera ederra Artzamendira

Euskal Herriko zazpi lurraldeetako lehen tontorra igo zuten joan den martxoaren 13an; Lapurdiko Artzamendi mendira (931 metro) joan ziren, hain zuzen ere. Igoera eta jaitsiera ederraz gain, paisaia politak ikusi ahal izan zituzten irteerara joan ziren 74 lagunek.

Lapurdiko Artzamendi mendira joan ziren lagunak.

URAREN NAZIOARTEKO EGUNA

Gizateriaren historian lehendabiziko aldiz, biztanleriaren gehiena hirietan bizi da: 3.300 milioi lagun; hori dela eta, hiri-pasaia handitzen doa.

Bere hedapenaren %38 hiriaren kanpoaldean sortzen diren auzoen zabalkundea da. Hiri-azpiegitura egokitzeko ahalmena baino azkarrago hedatzen ari da hiri-biztanleria.

2011ko Uraren Nazioarteko Egunaren helburua zera da: nazioartearen arreta bideratzea; izan ere, hiri-biztanleriaren hedapen azkarrak, industrializazioak eta klima-aldaketak, gatazkek eta hondamendi naturalek hiri-sistemekiko ur horniduraren ziurgabetasuna sortzen du.

"Hirientzako ura; hiri-erronkari erantzuten" aurtengo gaiaren helburua da nabarmentzea eta, horrez gain, gobernuak, erakundeak, elkarteak eta pertsonak bultzatzea, aktiboki parte har dezaten hiri-uraren kudeaketaren erronkari erantzuteko.

Klima aldaketarako egokitzapenak gehienbat urarekin du, hau baita bide nagusia klima aldaketak lurraren ekosistemak ukitzen dituena, eta beraz pertsonen bizitzari eta ongizateari. Gaur egun urarekin zerikusia duten klima aldaketaren eraginak antzematen dira, gero eta bortitzagoak diren lehorte eta uholdeak, adibidez. Tenperatura igoerek, ur maiztasunaren aldaketek eta muturreko tenperaturek ur baliabideen erabilgarritasuna eragina izango dute. Eurien banaketaren aldaketan, lurraren hezetasunean, glaziarren eta betiereko izotzen urtzean eta ibaien eta lur-azpiko uren korronteetan eragina izango du. Faktore horiek, gainera, ur kalitatearen narriadura dakarkie. Txiroak dira talderik ahulena eta ukituena izango dena.

Informazioa gehiago:
Tel.: 943 896024
www.ihobe.net
maizpuru@getaria.org

Harritan Blai, kulturaz BLAI!!!

2010eko apirilean, Askapeneko hitzaldi batekin eman zion hasiera *Harritan Blai* elkarteak bere ibilbideari. Harrezkero, hamaika ekintza antolatu dituzte, hitzaldiak direla, Mus Txapelketa dela, kontzertuak... Hiru lagun hasi ziren, eta hirurek jarraitzen dute, buru-belarri lanean, Getaria bezalako herri txiki bati zerbait gehiago eskaini nahian. Jonan Manero, Violeta Bandres eta Haritz Alberdirekin elkartu gara, elkarteari izena ematen dion tabernan, Harralden, hain zuzen ere.

Hasteko, nondik dator *Harritan Blai* izena?
Beno, guk hasieratik garbi geneukan egingo ziren ekimenek Harralde izango zutela topaleku; hori hala izanik, logoa egin behar zuen lagunari bururatu zitzaion izena. Garai bateko harraldean, geldirik egonez gero, blai egiten zen, eta horixe zen gure helburua, Harraldera hurbiltzen den edonork kulturaz blai bukatzea. Gure nahia jendea bustitzea da, harritan zeharo bustitzea, Harralden izango diren ekintzetan bustitzea.

Zein da *Harritan Blai* elkarteak duen helburua?
Batez ere herriko jendeari beste zerbait gehiago eskaintzea.

Zer ekintza antolatu dituzue hamabi hilabete hauetan?
Batez ere, hitzaldiak, Mus Txapelketak eta kontzertuak antolatu izan ditugu.

Hitzaldietan zer nolako gaiak jorratu dira?
Denetarik; baina, batez ere, egoera sozio-ekonomikoak, politikoak... lantzen dira, eta momentuan lehentasuna duten gaiak jorratuko dituzten lagunak ekartzen saiatzen gara. Askapenakoekin dugun harremanei esker, hainbat hizlari interesgarri ekarri izan ditugu; esaterako, gaur egun Libiako eta arabiar munduko egoera ikusita, horri buruz hitz egingo digun norbait ekartzeko asmoa dugu. Bestalde, herritik brigadista joandako lagunak ere gonbidatu ditugu, baita beste hainbat gai ere, besteak beste: Irrati Libreen inguruko solasaldia, Gipuzkoaren jatorria... Euskal Selekzioko partida ikustera joateko antolaketan ere parte hartu genuen... Hitzaldietan, beti, bertsio ofizialetik kanpo, beste ikuspegi bat ematen saiatzen gara; horietan guztietan gure helburua edo nahia da jendeak parte hartzea.

Eta lortzen da?
Batzuetan bai, gaiaren eta hizlariaren arabera. Etortzen denak jakin behar du

espazio ireki bat topatuko duela, inongo konpromisorik gabe proposatu dezakeela edozein gai. Gehienetan, kontzertuetarako proposamenak iristen zaizkigu jendearengandik.

Zer motatako taldeak etortzen dira kontzertuetara?
Denetarik, adibidez: bakarlariak, postmodernoak, taldeak… Harrera oso ona daukate, eta jendea oso gustura etortzen da.

Ez al dago leku falta?
Beharbada une batzuetan bai, baina guk orain artean ekarri izan ditugun taldeak oso ondo moldatu dira, eta ez dugu inongo arazorik izan. Horrez gain, taldeek atera dezaketen hotsarekin ere kontua izaten dugu, eta beti garaiz bukatu izan dugu. Iazko udan, adibidez, kalean kontzertu bat egin genuen eta oso harrera ona izan zuen; baina, ordua iritsi zenean, bukatu egin zen.

Eta musaldietan?
Musaldietan leku falta izango genuela hasieratik aurreikusi genuen, eta hori dela eta, Mahasti tabernakoekin hitz egin genuen; bi tabernetan jokatzen dira partidak.

Lekuz aldatzerik pentsatu al duzue espazio falta dela eta?
Ez; izan ere, hasieratik garbi geneukan gure apustua, ekitaldien gunea Harralde izango zela, eta horretara moldatuko ginela. Badira talde handiak Harralden jotzera eskaini direnak, baina guk ezetza eman diegu, daukagunari moldatzeko.

Kontzertuak ematen dituzten lagunekin nola jartzen zarete harremanetan?
Pixkanaka lortu dugun sare bat da, baina eurek asko laguntzen dute; hau da, hemen izandako talde edo bakarlariek gure berri eman diete beste taldeei eta, horrela, ahoz ahokoa oso ondo funtzionatzen ari da. Bestalde, Zarauzko herrikokoek ere esku bat bota izan digute; batez ere, hainbat talderi buruzko informazioa pasa digute, ez bakarrik abeslariena, baita beste mota batzuetako taldeena ere; besteak beste: antzerkia, txontxongiloak…

Hizlariek, taldeek, jokalariek… zerbait jasotzen al dute trukean?
Harritan Blai-n parte hartu duten guztiek doan egin dute, hasieratik garbi jartzen baitzaie ez dela dirurik ordainduko. Dena den, kontzertua ematen dutenei, afaria ematen diegu; horrez gain, kontzertuaren amaieran, otartxoa pasatzen dugu, eta bertan jasotakoa taldekideei ematen diegu. Hizlariei, berriz, pare bat botila txakolina ematen diegu. Guregana etortzen diren eragileak lanean dabilen jendea da, lanketa konkretu bat egiten ari dira; jorratzen duten mezua zabaldu nahi dute, eta guk horretarako espazioa eskaintzen diegu. Musaldiko irabazleei, berriz, saria ematen diegu (txuleta, saiheskiak…). Guk ezin dugu gehiago eskaini; zozketa bidez lortutako da finantzazio-iturri bakarra, eta horrekin, juxtu-juxtu, kartelak ordaintzeko eta afarirako ematen digu.

Ekimen guztiak aurretik lotzen dituzue?
Oro har, bai; lana zatitu egiten dugu, eta hitzaldiekin pare bat hilabeteko aurrerapenarekin jokatzen dugu. Dena den, gaurkotasunaren arabera, gaiak alda daitezke.

Zenbatean behin antolatzen dira ekintza horiek?
Hilean behin antolatzen ditugu; normalean, asteazkenean hitzaldiak izaten dira, ostiraletan musaldiak eta larunbatetan kontzertuak. Laster ikastaro bat antolatuko dugu, Software Libreari buruzkoa; Iratxe Esnaola zarauztarra etorriko da.

Aurrera begira, zer?
Berdin jarraitzeko asmoa dugu, baina egungo egoera ikusita, jakin ezazu… Gu lanerako gogoarekin gaude, eta oraingoz berdin jarraituko dugu.

Harritan Blai **elkarteak Harralden antolatu dituen hainbat ekitaldien irudiak: hitzaldiak, kontzertuak, bakarlariak...**

Argazki Txokoa

Argazkia: A. Manzisidor

Argazkia: Laida Sustaeta

2011ko mozorro-festa

Joan den martxoaren hasieran ospatu ziren aurtengo Inauteriak; Iturzaeta Herri Eskolako ikasleek martxoaren 4an ospatu zuten euren mozorro-festa, txikienek eskolako atarian eta handienek kiroldegian. Herrian, berriz, martxoaren 5ean ospatu zen festa: hasieratik Sei-Gurpil txarangak jarri zuen festa giroa herriko kaleetan, eta gero, Berdura Plazan herri-bazkaria egin zuten. Haurren mozorro desfilea, berriz, herriko plazan izan zen, kolorez beteriko mozorroak topaleku. Musikaz lagundutako poteoa ostean, tabernetan mozorro-sarien banaketa egin zen. 2011ko "Karnabaleruena" Ibon Iribar "Kortxo" izendatu zuten. Bestalde, aurtengo inauterietako kartel lehiaketaren irabazleak ondorengoak izan dira: Beñat Gereka (16 urtetik gorakoen mailan), Izaro Lestayo (DBH mailan), Jokin Aizpuru (LH4-LH6 mailan), Nerea Lasa (LH1-LH2 mailan) eta Ane Aaranes (2-5 urtekoen artean).

Argazkia: Irantzu Ezenarro

Argazkia: Erun

Argazkia: Irantzu Ezenarro

Argazkia: Erun

Argazkia: Erun

Argazkia: Erun

Argazkia: Erun

Yaakar Urola Kosta elkartea

Ida Camara eta Ousmane Ba

Badira dagoeneko hainbat urte herriko kaleetan afrikarrak dabiltzala; batez ere, itsasoan edo ostalaritzan lana topatu eta bertan gelditu direlako. 2008. urteaz geroztik, eskualdeko senegaldar asko Yaakar Urola Kosta izeneko elkartean antolatu dira. Gaur egun, Getariako, Zarauzko, Orioko eta Zumaiako jendea dago elkartean. Azkoitia eta Azpeitia inguruan ere badaude senegaldarrak. Elkartean eskualdeko senegaldar guztiak bildu nahi dituzte; gaur egun, 200 kide ditu. Senegalgo eta hemengo kulturaren artean dagoen aldea handia da, eta herrikideekin elkartuta alde hori txikitu egiten zaie. Getarian bizi diren elkarteko bi kiderekin elkartu gara gehiago jakin nahian, eta hauxe da Idak eta Ousmanek kontatu digutena.

2008. urte amaieran sortu zen elkartea; zer helbururekin?
Batez ere, elkarri laguntzeko; hau da, kideren bati zerbait gertatuz gero, taldearen babesa izan dezan. Horrez gain, hemendik Senelgalgo egoera hobetzeko ahal duguna egiten saiatzen gara, eta horren adibide, bi proiektu gauzatu ditugu: batetik, Euskadiko elkartearen bitartez, eltxo sareak banatu dituzte hango bi herritan ; bestetik, Eusko Jaurlaritzak finantzatuta, eskola bat egin dute hegoaldeko Bolingore herrian.

Gaur egun, 200 kidek osatzen duzue elkartea; gehiago handitzeko asmorik?
Bai, noski. Urola Kostako senegaldar guztiak elkartean sartzea lortu nahi dugu, aurrera egin ahal izateko indarrak batuz. Norberaren herritik urrun egotean, herrikideekin elkartu beharra izaten dugu, elkar babesteko edo komunikatzeko. Elkarri laguntzea da garrantzitsuena, gauzak elkarbanatzea...

Noiz elkartzen zarete?
Hilero elkartzen gara, gutxienez hilean behin; gehienetan igandeetan. Bilera orokorra izaten da, kideei egiten diren gauzei buruz informatzeko, batez ere.

Non?
Orain, Zarauzko lokal bat erabiltzen dugu, baina beste leku bat bilatzen ari gara.

Eta Getarian?
Getarian elkartu behar izan dugunean beti utzi izan digute lekuren bat.

Gure herrira iristean, zer zailtasun izaten dituzue?
I: Dudarik gabe beste kultura bat da, eta hasieran, guztia da erakargarri, guztia baita ezberdina; gero, pixkanaka, ohitzen joaten da, erritmoa hartzen diozu hemengo bizimoduari.
O: Etxebizitzak eskuratzeko zailtasunak izaten ditugu; hala nola, etxea alokairuan hartu nahi, eta jabeak beltza dela ikusitakoan, jada alokatu duela esatea gertatu izan zaigu. Eta ondoren, egiaztatzea artean alokatu gabe zegoela. Adibidez, Bilbon, bi edo hiru logelako etxean hamabost lagun bizi dira, eta ez alokairua ordaintzeko dirurik ez dutelako, inork etxerik alokatu nahi ez dielako baizik. Horrenbeste etxe huts egon, eta animaliak baino okerrago bizitzera derrigortzeko eskubiderik ez dago. Hemen, normalean, hiru, lau edo bost lagun bizi dira, ezin baitute etxerik alokatu.

Yaakar Urola Kosta elkarteak antolatzen dituen bileretako irudi bat.

Hizkuntzaren zailtasuna izan duzue?
I: Batzuek Senegaldik irten aurretik gaztelania ikasia zuten; izan ere, hamar urte egin arte, frantsesa ikasten da, eta hamar urte egin eta gero, hainbat hizkuntzen artean aukera dezakegu (ingelesa, gaztelania, portugesa, alemana…). Nik, adibidez, lau urtez gaztelania ikasi nuen.

Euskararekin zailtasunik?
I: Hemen pixka bat ikasi dut, zerbait ulertzen dut, baina zaila da, gaztelaniaren oso ezberdina baita.

“Etxebizitzak eskuratzeko zailtasunak izaten ditugu”



Antolatzen diren ekitaldietan Senegalgo gastronomia erakusgai.

“Inon ez naute Euskal Herrian bezain ondo tratatu”

Euskal gizarteak, eta batez ere getariarrak, nola hartu zaituztete?
Gure kulturatik oso ezberdina da hau, baina aurrera egiteko integratu behar dugu, eta hemengo kultura errespetatu. Baina integrazioaren bidean bertakoek ere lagundu behar dute.

Hona etortzearen helburua?
Bizitza hobe bat izatea, batez ere. Beste batzuk, berriz, ez daude gaizki haien herrian, baina hemen zer aurkituko ote duten jakin-mina izaten dute.

Unibertsitateko ikasketak dituzue askok, ezta?
Bai, baina berdin dio hemen, hango ikasketak ez dituztelako baliozkotzen. Ezta gidabaimena ere: adibidez, Espainiako estatukoak balio du Senegalen, baina hangoak ez Espainiako estatuan, eta hori dela eta, hemen gidatu nahi izanez gero, berriro atera behar dugu gidabaimena. Bestalde, hemen dagoen guztia dago han; unibertsitatean ikasitakoak gara, eta hona etorri gara gure bizitza hobetzera, nahiz eta batzuek uste duten min ematera edo lapurtzera etorri garela, edo han goseak gaudelako, baina hori ez da horrela. Askotan jendeak gaizki begiratzen digu, tontoak garela uste dute, baina beltza izatea ez da tontoa izatea, bospasei hizkuntza dakizkite askok.

Euskal Herrira iritsi aurretik, beste nonbait izan al zarete?
I: Bai, normalean gehienok beste hainbat lekutatik pasa izan gara; ni, adibidez, Hegoafrikan, Groenlandian eta Portugalen izan naiz hona iritsi aurretik. Euskal Herrian oso gustura gaude; euskalduna nahiko pertsona itxia da, baina pixka bat ezagutzean ireki egiten da. Ni egon naizen herrialdeetan ez naute Euskal Herrian bezain ondo tratatu. Andaluziako hainbat lagunek behin baino gehiagotan esan digute zoratuta gaudela hemen bizitzeagatik, hemen “errebeldeak“ bizi direla eta… Baina guztiz aurkakoa da, oso gustura baikaude.

Lana bilatzea zaila al dago?
O: Bai, oso zaila, baita itsasoan lan egiteko ere, lehendik bertan lanean daudenek ez baitute uzten; lehorrean, berriz, are eta zailagoa da.

Zer lanetan diharduzue?
O: Biok ostalaritzan diharbaina etengabe curriculumak bidaltzen ditugu hara eta hona; beltzak izateagatik, ordea, zailago daukagula iruditzen zait. Behin, adibidez, Bilboko bulego batean curriculuma utzi nuen, eta berriro bueltatu nintzen berehala mugikorra ahaztu baitzitzaidan; une horretan, bulegoko langilea nire curriculuma zakarrontzira botatzen harrapatu nuen. Tamalez, halaxe dago bizitza.

Jendearen babesa jasotzea zaila gertatzen al da?
Gu gustura gaude Euskal Herrian, baina ez da erraza egiten jendearen oniritzia jasotzea; batzuek uste dute Afrikan dena pobrezia dela. Komunikabideek Afrikaz ematen duten guztia negatiboa da, baina han ere badaude gauza onak, eta alderantziz, hemen ere badago pobrezia. Bestalde, euskalduna oro har itxia da hasiera batean, eta gu, berriz, irekiak gara; hori dela eta, hasiera batean zaila izaten da integratzea.

Herrimina dela eta, zer botatzen duzue faltan gehien?
Guztia, baina batez ere familia, lagunak, bizitza… Hemen guztia da ezberdina. Oso gogorra da etxetik kanpora egotea. Horregatik da garrantzitsua elkarrekin egotea, aurrera jarraitzeko adorea ematen baitigu.

Zuen kulturaren berri emateko hainbat ekimen antolatzen dituzue; zeintzuk dira?
Bai, ekimen batzuk ere egiten ditugu jai giroan, herrietan bertako jendearengana gerturatu eta zabaltzeko asmoz. Lehen, Hondarribian bizi ziren senegaldarrak etortzen ziren ikuskizuna ematera, baina duela bi urte hemen bizi garenak hasi ginen. Laster, inguruko herrietan festak hasiko dira, eta bertan egingo

diren kulturarteko festetan parte hartzen saiatuko gara; izan ere, gure kulturaren berri emateko eta ezagutarazteko aukera paregabea izaten da.

Zuen kulturako zer ezaugarri erakusten duzue, batez ere?
Dantzak, gastronomia… Senegalen arroza asko jaten da, gehienetan arrainarekin. Horrez gain, "borroka" erakustaldia ere egiten dugu; adibidez, joan den azaroan, Zarauzko hondartzan horrelako erakustaldia eskaini genuen.

Euskal kulturatik zer berezitasun zaizue deigarri?
Euskal dantzak eta batez ere irrintzia, gure kulturan ere antzeko oihua egiten baita.

Zer eskatzen diozue euskal gizarteari?
Ateak ireki ditzatela, batez ere integrazioa errazteko: euskal kulturari eskain diezaiokeguna ikus ahal izateko, etorkina zer den ezagutarazteko; azken finean, Senegalgo kulturaren eta euskal kulturaren elkartrukea emateko. Guk maite ditugu euskaldunak eta euskal kultura, eta hemen ez gaude inori okerrik egiteko, euskaldunak nahi ez dituzten lanak egiten ari gara. Jende txarra ere badagoela?... Toki guztietan bezala, euskaldun txarrak dauden bezala; ezin da orokortu. Hemen integratu nahi dugu, baina bertakoen laguntza beharrezkoa da.

"Integratu nahi dugu, baina bertakoen laguntza beharrezkoa da"

Senegal

Eremua:
196.722 kilometro koadro

Hiriburua:
Dakar

Hizkuntzak:
Frantsesa (ofiziala), wolofera, fula edo pulaarera, diolera, mandinkera

Biztanleak:
12,7 milioi (NBE, Nazio Batuen Erakundea, 2008).
Wolofak (%43,3), peulak edo fulak (%23,8), serereak (%14,7), diolak (%3,7), mandinkak (%3), soninkeak (%1), europar eta libanoarrak (%1) eta besteak (%9,4; txinatar, vietnamdar)

Erlijioak:
musulmanak (%94), kristauak (%5, batez ere katoliko) eta sinesmen tradizionalak (%1)

inauteriak



Martxoaren 4an inauteriak ospatu genituen gure eskolan. Iritsi zen espero genuen eguna eta arratsaldea.

6. mailakoak taldetan banatu ginen eta jolasak prestatu genituen besteentzat. Tutoretza saioa erabili genuen horiek antolatzeko.

Eguna iritsi zenean, ordu bietan kiroldegian ginen mozorrotuta, dena antolatzeko prest: probaketarako janaria, arrautzen jokorako kutxarak, kaxak prendaz bete... Urduritasuna zen nagusi gure artean, baina pixkanaka, lasaitzen joan ginen.

Ondoren, talde bakoitzak bere esperientzia kontatuko du.

- "Gu, John-Willy, Garazi, Leire C. eta Aitziber gara, eta 1. mailako taldea tokatu zitzaigun. Horiek 6-7 urtekoak dira (guretzako, nahiko txikiak). Ikasle horientzako kiroldegian ospatzea berria zen. Aurreneko aldia izaten da, modu honetan, jolasak egiten dituztela. Hasieran, ez ziren hain ondo moldatu, baina oso ondo pasa zuten gure jolasekin. Sagu txiki jolasa izan zuten gogokoena".

- "Guk, Jon, Maialen U. eta Xabierrek, beste talde baten ardura izan genuen; hain zuzen, 2. maila-A tokatu zitzaigun, eta egindako festan beraiekin egon ginen. Hasieran, ez gintuzten bakean uzten prestatzen. Janari probaketa prestatzen ari ginela ikusi nahi izan zuten, baina ezin da hori egin, jolasak grazia galtzen du eta; behin eta berriz errepikatzen genien ez begiratzeko. Zailtasunak izan genituen azalpenak ematean ere; gu esplikazioa ematen ari ginenean, beraiek parrez lehertzen ziren eta. Erritmoa hartzea ere kostatu zitzaigun, hasieran mantso eta etenune askorekin jolastu ginen. Jolas batzuetan parte hartzea kostatu zitzaien. Adibidez: erregalizen jokoan, lagun askok esan ziguten ez zutela gustukoa. Botila jokoan ere... mutilek ihes egiten zuten prendaren aurrean"

- "Gu, Gorka, Eneko eta Kattalin, 2B-koekin egon ginen. Aste bat lehenago hasi ginen gauzak prestatzen.

Jolasak eta erosi beharrekoak pentsatu... Astea pasa eta festarako egun bat falta zela, bikoteak egiten hasi ginen.
Eguna iritsi zenean, ordu bietarako gauzak prestatzen hasi ginen. Probaketarako janaria, arrautzen jokorako kutxarak, kaxa prendaz bete...

Probaketarako janaria bagenuen, baina platerik ez; kaxa ere bai, baina prendarik ere ez; arrautzak bai, baina kutxararik ez. Hasiera pixka bat desastrea izan zen.

Azkenean, ahal genuen moduan bideratu genuen; beste joko batzuk asmatu genituen, denbora guztian jokoak egin ahal izateko. Eta horrela konformatzera. Umeak, deabru txiki batzuk ziren, ez zuten kasurik egiten.

Eta horrela jokoak egin, desfilean dantza egin eta bukatu ondoren, txokolate beroa edan genuen, denok biribilean jarrita.

Azkenerako, 2B-ko ume bihurri horiek guztiak ez ziren hain bihurriak.

Agian haurrak zirelako".

- "Gu Nerea U., Miren eta Lore gara, eta 3. maila tokatu zitzaigun. Festa kiroldegi kanpoan izan zen, eta 3. mailakoak sarreran kokatu ziren.

Talde honek oso ondo pasa zuela iruditu zitzaigun. Orain egindako jolas bat kontatuko dugu, Janari probaketarena. Jolas honetan, 4-5 janari ezberdin jartzen dira platerean, eta jokalariak, begiak itxita, dastatzeko ematen diotena asmatu behar du. Jolas hori asko gustatu zitzaien, baina denak ikusten saiatu ziren; guk, ordea, esan genien ez begiratzeko.

Gure aldetik, beraientzako jolas gogokoenak prestatzen saiatu ginen.
Talde honek jolas eta prenda guztiak egin zituen, eta oso ondo portatu ziren".

- "Gu Ane, Alaine eta Libe izan ginen, eta 4. maila izan zen gure taldea. Batzuek bakarrik obeditzen zuten. Kexatzera etorri zirela ematen zuen. Ez korrika, ez prendak egin, alfertuta zeuden. Guk zaharragoei ez genien ezer egitera derrigortzen. BAINA OSO ONDO PASATU GENUEN!!!! "

- " Guk, Kepa, Nerea M. eta Maddik, 5A talderako prestatu genituen jolasak. Kasu gehiegi ez ziguten egin, eta arazo batzuk izan genituen antolatutako hiru jolasekin. Probaketarenarekin hasiko gara; batzuek besteei esaten zieten zer janari jarri ziren, eta horrela, jolasak ez du graziarik. Irinaren jolasean ere arazo batzuk izan ziren. Taldeko batek, nahita, putz egin zuen platerean eta sugusak agerian gelditu ziren.

Hirugarren jolasean, botilaren jolasean, eztabaidak izan ziren, baina ondo pasatzera joan ginen eta lortu genuela iruditzen zaigu"

- "Gu Aitor, Leire A. eta Maddalen gara, eta inauteriak prestatzeko lan handia hartu genuen. Dena pentsatu ondoren, 5B mailako gelara joan ginen azalpenak ematera. Jolasetarako bikoteak jakin nahi zituzten, baina ez genien esan eta jolasa hasi baino lehenago egingo genituela komentatu genien; tranpa txiki bat egin genien.

Iritsi zen jolasak egiteko eguna, eta orduan esan genizkien bikoteak. Denak haserretu egin ziren, baina aurrera segitu genuen. Bikoteak esan eta desfilatzen hasi ginen. Batzuek aurkezlearena egin zuten. Desfilea bukatu ondoren hasi ziren jolasak. Gure taldea nahiko ondo portatu zen, eta ez genuen problemarik izan. Proba guztiak egin nahi izan zituzten, baita gehiago ere; joko bat bi aldiz egin nahi izan zuten. Guk oso ondo pasa genuen, beraiek bezala"

Artzapezaleok hau izan da dena. Aurtengo inauteriak pasa dira eta hurrengoen zain gaude dagoeneko. Agur.

6. maila

Getariarrak baleak harrapatzen Kantauri itsasbazterreko lurretan

Azken urteetan egindako ikerketa historiko-arkeologikoen ondoren, gure artean dagoeneko ezagunak dira joandako mendeetako euskaldunek Ternuan egindako abenturen berriak. Badakigu XVI. mende hasierarako balea eta bakailaoa harrapatzera joaten zirela Ternuara euskaldunak, eta XVIII. mende hasiera arte jardun zuten. Euskaldunak, ordea, ez ziren Ternuan soilik arrantzan aritu; mendeetan zehar, beste hainbat lekutan ibili ziren; leku batzuetan, Ternuara joan aurretik, eta beste batzuetan, hara joan eta gero. Amerika aurkitu baino lehen, XIV. eta XV. mendeetan, Galizia, Asturias edo Islandiako uretara joaten ziren baleak harrapatzera eta Britainiar Uharteetara bakailaoa, sardina-zaharra, edo izokina arrantzatzera. Geroago, XVII. eta XVIII. mendeetan, Artiko inguruko uretan ibiltzen ziren baleatan: Norvegia, Svarbald eta Groenlandia inguruko itsasoetan. Aldi horretan, ordea, ez ziren amaitu Galizia, Asturias edo Kantabriara balea arrantzatzera egindako espedizioak; XVIII. mende hasiera arte jarraitu zuten horrela.

Are gehiago, XVII. mende hasieratik aurrera, berrindartze garrantzitsua izan zuten Galiziako, Asturiaseko edo Kantabriako bale-espedizioek. Berrindartze honen arrazoia izan zen mende oso batean egindako arrantzak bale-kopuruaren jaitsiera larria eragin zuela Ternuan. Gutxitze horren ondorioz, arrantzatzeko beste leku batzuk aurkitu nahian, espedizio ugari egin ziren Artiko inguruko uretara; baina, aldi berean, Gipuzkoako kostaldeko herri txikietako armadoreak (batez ere, Orio, Zarautz, Getaria, Zumaia, Deba eta Mutrikukoek) Galiziara, Asturiasera, Kantabriara eta Bizkaira joan ziren; horregatik berrindartu zen nabarmen lurralde horietako bale-arrantza. Ez zuten harrapatzen Ternuara edo Artikora egindako espedizio horietan beste, baina oso ur emankorrak ziren armadoreentzat; izan ere, gastuak askoz ere txikiagoak ziren. Galiziara, Asturiasera, Kantabriara edo Bizkaira baletara joateko ez zuten itsasontzi handien beharrik, nahikoa zituzten balea harrapatzeko eta ohiko arrantza egiteko erabiltzen zituzten txalupak eta pinazak. Gainera, baleatan aritzeko lurralde horietako portuak alokatzen zituzten, eta hango azpiegiturez baliatzen zirenez, ez zuten etxetik dena eraman behar –bizitokiak eta lantegiak eraikitzeko zura, teilak, jakiak, eta abar–, Ternuan egin behar izaten zuten bezala. Aipatu dugu Getarian ere antolatu zirela mota horretako espedizioak, eta hurrengo lerroetan, haietako batzuk aipatuko ditugu.



1614an, Getariako Juan de Gorriaran kapitainak Kantabriako Comillas herriko prokuradore orokorrarekin, Domingo de la Torre izenekoarekin, akordio bat sinatu zuen hara baleatara joateko. Juan de Gorriaran kapitainak Comillasko portua eta udalerri horretan zegoen Oyambre izeneko portua alokatu zituen, urte hartan baleatan aritzeko. Juan de Gorriaran bi txalupatan joan zen hara, baleatarako beharrezko tripulazio, arpoilari eta tresnekin. Domingo de la Torrek beste bi txalupa jarri zituen, beharrezko tripulazioarekin, Juan de Gorriaran kapitainaren aginduetara baleatan aritzeko. Irabaziak erdibana izango zirela adostu zuten.

1617an, Domingo de Camposek Getariako arrantza-enpresari nagusietakoak balea-espedizio bat antolatu zuen Lekeitiora. Domingo de Campos Gipuzkoako eskabetxegile nagusietakoa zen, Getariako badian arrantza egiteko arrastesare handien jabea. Galiziara, Asturiasera, Kantabriara edo Bizkaira zuzendutako balea-espedizioen arrakasta zela eta, jarduera horretan inbertitzea erabaki zuen. Espedizioa antolatzeko, konpainia abat osatu zuen Nicolás de Alzuru eta Juan de Alzuru zarauztarrekin, Miguel de Ariztondo debarrarekin eta Íñigo Martínez de Licona lekeitiarrarekin. Zarauzko Alzuru anaiek eta Ariztondo debarrak eskarmentu handia zuten armadoreak ziren, urte askotan Galiziko eta Asturiasko uretan baleatan aritutako espedizioak antolatu zituztenak. Íñigo Martínez de Licona, berriz, Lekeition beharrezko azpiegiturak eskaintzeaz arduratu zen.

Izkira-koktela

Osagaiak:

- Kilo bat izkira
- Letxuga
- Anana natural bat
- 6 barra txaka

Saltsa arrosarako:

- Kikara bat maionesa
- 2 kikara Ketchup
- Laranja erdiaren zukua
- Koilarakada bat whisky
- Gatza
- Pipermina
- Tabasko-tanta batzuk

Prestaketa:

Anana erditik moztu eta barruko fruta kendu, anana bera ontzi bezala erabiltzeko utzi; horizontalean eta bertikalean moztu daiteke. Izkirak egosi bi minutuz, zuritu eta zati txikitan egin. Izkira batzuk apaintzeko utzi. Letxuga eta txaka zatitu, eta anana ontzira bota, izkirekin batera. Bukaeran, saltsa arrosa gehitu eta dena nahasi.

Salsa arrosa egiteko: osagai guztiak nahasi, laranja-zukua bukaerarako utzita.

Zuritu gabeko izkirak anana ontziaren izkinatan ipini, apaintzeko.

On egin!

Gizakiaren minak

***Idazlea**:*
Karlos Linazasoro
(Tolosa, 1962)
***Argitaletxea**:*
Erein
***Argitalpen urtea**: 2010*
***Orri kopurua:** 160*

Dagoeneko ugaria da Karlos Linazasororen literatur ekoizpena, eta hainbat alorretan aritu dela esan genezake: haur eta gazte literaturan, poesian, antzerkian…; baina, betiere, bere estilo propioa alde batera utzi gabe. Hilabete honetan, lehengo urtean argitaratu zuen liburu bat dakarkizuet: Gizakiaren minak.

Ipuin liburu bat da, hamaika ipuinez osatutako lana, eta azpimarragarriak dira ipuinen artean dauden desberdintasunak: lehenengoa hiru idazle ezaguni (Rimbaud, Verlaine eta Duchamp) buruzkoa da. Bertan, hiru pertsonaia horien biografia kontatzen du, errealitatea eta fikzioa nahasiz. Orain arteko ipuingintzaren estiloa biltzen duten beste zenbait kontakizun ere badira. Azkenik, behin eta berriz errepikatzen diren gaiez osatutako istorioak aurki ditzakegu: gerra, heriotza…; istorio horietako protagonistak, berriz, askotarikoak dira: prostitutak, juduak…

Liburuan denetarik dagoela esan dezakegu: garai desberdinen nahasketa, antzik ez duten pertsonaiak, mutur batetik bestera doazen gaiak… Hainbeste desberdintasun izanda ere, istorio guztiek doinu bera dute, Linazasororen doinua.



Aitor Irigoien

"Peace be with you"

"Peace be with you". Bakea izan bedi zurekin. Hala zioten Israelgo Turismo Ministerioko publizitate iragarki deigarriek. Palestinarren eta israeldar estatuaren arteko aferak, bien bitartean, konponbide gabe jarraitzen du.

Amaiera gabea dirudien gatazkaren jatorria XIX. mendearen amaieran koka daiteke, Theodor Herzl-ek, sionismoaren ideologo nagusiak, judutar diasporarentzat estatu propioa sortzea proposatu zuenean. Europan lekurik ezean, palestinar lurrak hautatu zituzten, bertan inor bizi ez zela argudiatuz: "Herririk gabeko lurra, lurrik gabeko Herriarentzat". Errealitatean, alabaina, lur haietan, VII. mendetik, arabiarrak bizi ziren; 1898an 500.000 biztanle.

Palestinako lurrak Britainia Handiaren menpe zeuden eta, XX. mende hasieran, britainiarrek Palestinan judutarrentzako estatu bat sortzeko konpromisoa hartu zuten.

Hamarkada batzuk beranduago, Alemania naziaren lurretako jazarpena medio, judutar ugarik emigratu egin behar izan zuten. Horrenbestez, milaka judutar iritsi ziren Palestinara.

1947an, Britainia Handiak Palestinar lurrak NBE-ren esku utzi zituen. Urte berean, NBE-k zatiketa plana onartu zuen, hots, Palestinako lurrak bi estatutan zatitzea. Batetik, Israelgo estatua, lurren %53rekin; bestetik, Palestinar estatua, lurren %46rekin; Jerusalem, hiri sakratua, nazioartearen kontrolpean geratu zen. Erabaki horrek, eta Israeldar estatuaren sorrerak, herrialde arabiarren haserrea eragin zuen, 1948ko guda arabiar-israeldarra piztuz. Guda israeldarrek irabazi zuten. Aurrerantzean, palestinarren zorigaitza eta sionisten handinahia neurri berean hazten joan ziren.

Aitzitik, aipatu NBE-ren erabakia Israelek lehen unetik hautsi zuen, ez zegozkion lurrak okupatzeari ekin baitzion, talde sionista armatuen erasoen bidez palestinar biztanleengan izua barneratuz. Ondorioz, 900.000 palestinar euren etxeetatik eta lurretatik kanporatu zituzten, *"Nakba"* (katastrofea arabieraz) gisa ezaguturiko exodoan. Israel Handia eraikitzeko baliatu zuten sionistek NBE-ren plana, legez kanpoko koloniak etengabe eraikiz. Estatu palestinarra, bestalde, ez da inoiz egikaritu.

1967an, alta, egoerak okerrera egin zuen. Sei Eguneko Gudan lorturiko garaipenari esker, Israelek Palestinako lur denak okupatu zituen indarraren bidez. Horrek palestinarren bigarren kanporaketa masiboa eragin zuen.

Israelgo estatuan, urteak aurrera egin ahala, eskuin fundamentalista sendotu da boterean; gainerako alderdien jarrerak ere gogortzen joan dira. Palestinarren aurkako arrazismoak elkarbizitzarako aukera oro baztertzen du. *"Jainkoak hautatutako herria"* direnez, dena zaie zilegi.

Palestina, ostera, zatituta dago geografikoki zein politikoki. Gazan, Hamas da boterean 2006. urtetik, nazioarteak gainbegiratutako hauteskundeak irabazi ostean. Ordutik, Israelen blokeopean dago. Zisjordanian, Al Fatah-k agintzen du eta Israelek eraikitako 750 kilometro luze eta 8 metroko altuerako harresiaren ondorioz, hiri espetxea dirudi. Nazioarteko justiziak legez kanpokotzat jo eta erauzi behar zela ebatzi zuen arren, bere horretan dirau…

Zehazki duela bi urte jazo zen Israelen guda ekintzetako enegarrena, "Berun Urtua" ofentsiba, alegia. Gazaren aurkako erasoan 1.400 pertsona hil eta 5.500 zauritu ziren. Janari biltegiak, ospitaleak, anbulantziak edo Gurutze Gorriaren eraikinak bonbardatuak izan ziren; mediku eta kazetariak tirokatuak…

Hori dena ez litzateke posible izango, ordea, nazioarteko komunitatearen pasibotasunik gabe. Erasoen aurrean, ez dira ezer egiteko gai azaldu potentzia handien menpeko nazioarteko erakundeak. AEB Israelen aliatu leial izan da une oro, israeldar lobbyek AEBn duten eragina medio. Israeldarren guda tresneriaren zati handi batek *"Made in USA"* etiketa darama. Europar Batasunak Israelekin tratuan jarraitu du, gatazkatik at. Ginebrako Konbentzioko hainbat atal eta NBEren beste hainbat erresoluzio, behin eta berriz, hautsi arren, ez du zigorrik jaso Israelek.

Hala, buruturiko bake saiakera guztiek porrot egin dute, israeldarrek hitzartutakoa ez betetzeko erakutsi abileziaren ondorioz. Palestinarrentzat bake-negoziazio oro kaltegarri suertatu da…

Horrela, irauten jarraitzea da palestinarrei geratzen zaien borroka nagusia. *"We will stay here"* (hemen jarraituko dugu) irakur zitekeen bonbardaketa batean suntsitutako etxetik zutik geratzen zen horma bakarrean...

Hori, edo etsipena. Urte luzeetako sufrimenduaren ostean, konponbiderik ez baitu ikusten palestinarren zati handi batek. Itxaropena izan ohi da azkena galtzen dena. Horrek, alabaina, ez du esan nahi inoiz galtzen ez denik. Itxaropenaren sugarra bizirik mantentzearen lan horretan nazioarteak badu zeresana; badira bideak; Hego Afrikan lortu zen…

6.000.000 errefuxiatu, 11.000 preso politiko, ehunka mila atxiloketa, kartzela sekretuak, zibilen hilketak, oinarrizko eskubideen urraketa sistematikoa, etxebizitzen erauzketak, errepide mozketak, uren kutsatzeak, laguntza humanitarioaren aurkako ekintzak… Honats, israeldar *"bakea"*; olibondo adarrak apurtzen dirauen *"bakea"*. *"Peace be with you"*

elan euskadi
ONGD - GGKE

Tv Serrana:
dokumentala, bitxigintzako pieza

1961ean, Kubako gobernu iraultzaileak alfabetizaziorako kanpaina bultzatu zuen, eta horretarako, milaka gazte herrialde guztian zabaldu ziren, Kubako azken txokoraino heldu arte. San Pablo de Yao herrixka izan zen txoko horietako bat; Sierra Maestra mendizerraren magalean dago kokatuta, Granma probintzian. Daniel Diez gazteak hango nekazariak alfabetatu zituen, eta egindakoarekin hunkiturik geratu zen; Sierra Maestrako herritxoarekiko zorra izango balu bezala sentitu zen.

Urteak pasa eta 1993an, Daniel Diez San Pablo de Yaora itzuli zen, beste proiektu batekin: "Televisión Serrana". "Aldi berezia" deritzon garai hartan, Kuba oso une larria ari zen pasatzen, eta Danielek, Kubako gobernuaren aldetik diru-laguntzarik lortu ez zuenez, Unescora jo zuen; erakunde hark baiezkoa eman zion Diezen proiektuari.

Television Serranak, telebista izateaz gain, beste urrats bat harago joan nahi zuen, eta dokumentalista izateko eskola bihurtu zuen. Television Serranak antolatzen dituen ikastaroetara, askotan joaten dira beste herrialdeetako ikasleak, Kubako ikasleez gain. Hemezortzi urte hauetan, belaunaldi bat baino gehiago pasa da telebista horretatik. Egin dituzten dokumental guztiek Sierra Maestrako biztanleen izaera, arazoak, nahiak eta amarruak jorratzen dituzte; nolabait esateko, kalitate handiko azterketa etnikoak egiten dituzte. Hala ere, Television Serranako zinegileen dokumentalek ezaugarri bereziak dituztela esan daiteke, nahastezinak dira, bitxigile baten lanak izango balira bezala.

Joan den abenduan, ELAN-EUSKADIKO hainbat lagunek Tv Serranan izateko aukera izan genuen, eta aurrerago, han egindako dokumental onenetariko batzuk ikusi ahal izango ditugu Getarian. Gure kontu!!

azkuelek
ELEKTRIZITATEA
K21
- DEKORAZIOA
- ILUMINAZIOA
- ERA GUZTIETAKO INSTALAZIO LANAK
Tailerra/Denda: Araba, 41 (MAXI) 20800 ZARAUTZ
Tel./Fax: 943.13.04.33 - 943.13.33.08
Mobila: 619.52.35.39 azkuelek@euskalnet.net

Astillero
ANTONIA IRIBAR
Erretegia
Parrilan espezialitatea
kaia, 1
20808 GETARIA Tel.: 943 14 04 12

Garbiñe Ibarbia Gamboa
Colegiado Nº 5158/158
- Proiektuak eta erreformak
- Obra-zuzendaria
- Obra-eta jarduera-baimenak
- Gremio koordinaketa
barne diseinua interiorismo
Kristobal Balentziaga, 7 - Getaria - Tel. 685 75 18 21 garbi.ibarbia@euskalnet.net

CAJA LABORAL
EUSKADIKO KUTXA

] apirileko agenda

[Apirilaren 3a, igandea]
BIZIKLETA IRTEERA: URI-BARRI-GANBOA urtegira (Araba)
Irteera-ordua: 08:30ean
Izena-ematea: Iruretagoiena drogerian, martxoak 31 arte
Ibilbidea: Uribarri-Ganboa urtegia (bi ibilbide, 18 eta 33 km-koak)
Antolatzailea: Gure Txeru

[Apirilaren 7a, osteguna]
MILAGROra (Nafarroa) IRTEERA:
Kalahorra herria bisita, F*inca el Montecillo* jatetxean bazkaria. Ondoren bingo jokoa eta dantzaldia
Irteera-ordua: 08:30ean
Antolatzailea: Arrantzale Zaharren Elkartea

IPUINAREN ORDUA, MAITE ARRESE KONTU-KONTARI:
"Txoritxo batek esan dit..."
Noiz: 18:00etan
Non: Alondegian (Gaglo gaztelekua)

[Apirilaren 10a, igandea]
Lehengo urtean Gipuzkoako Bira-ko antolatzaileek mendi-irteerak antolatu dituzte 2011rako
Apirileko irteera: Gorbeia (Bizkaia) 1481 m

LESAKAN DANTZARI TXIKI EGUNA
Getariako dantzariak bertan egongo dira

[Apirilaren 17a, igandea]
GAZTE ALAIAK TXISTU TALDEA
DIANA, herriko kaleetan zehar.
TXISTU EMANALDIA
Noiz: 12:30ean
Non: Berdura Plazan

] Kirola

"FLOREN MEMORIALA" I. FUTBITO TXAPELKETA
Partida egunak: ostiraletan 21:30ean eta larunbatetan 16:30ean
Antolatzailea: Gure Txeru

"SALBATORE DEUNA XIV. PILOTA TXAPELKETA"
federatuentzat (kadeteak, jubenilak eta 22 urte azpikoak)
Izen-ematea:
apirilaren 15a arte
Txapelketaren hasiera:
maiatza
Antolatzailea: Gure Txeru

NESKEN VI. PALA TXAPELKETA
Antolatzailea:
herriko neskek

] Gaztelekua

APIRILA
Ordutegia: ostirala 17:00etatik 20:00etara/ larunbata eta igandea 16:00etatik 20:00etara
Aste Santua
Apirilak 26, 27, 28 eta 29 (10:00-13:00 /14:00-20:00)
Apirilak 21,22, 23, 24, 25, 30, 31 itxita

] KZgunea

Noiz: Apirileko ordutegia: 17:00etatik 20:00etara
Tutorea egongo da, apirilak 1, 8, 15 eta 29 (09:00-13:00)
Apirilaren 21etik 29ra itxita

] Gaztetxia

[APIRILA]
-ZINE ZIKLOA
Noiz: igandeetan, 18:00etan
-ASANBLADA
Noiz: ostegunetan, 19:00etan

] Festak

[Apirilaren 28a, osteguna]
SAN PRUDENTZIO EGUNA
San Prudentzio auzoko jaiak

] Lehiaketak

GETARIAKO X. LITERATUR LEHIAKETA
IPUINA, BERTSOA/ OLERKIA modalitateak

Lanak aurkezteko azken eguna: 2011ko apirilaren 15ean, 13:00etan

Telefono interesgarriak

Udal bulegoa	943 896 024
Faxa	943 140 190
e-mail:	udala@getaria.org
Kiroldegia	943 140 432
Kirol-portua	943 580 959
Taxiak	
Segundo	607 720 242
Jose Mari	607 403 498
Udaltzaingoa	943 896 146
Liburutegia	943 896 147
Anbulatorioa	943 140 653
Botika	943 140 441
Herri Eskola	943 140 729
SOSdeiak	112
Kofradia	943 140 200

artzape aldizkaria
943 000 548
artzape@topagunea.com

[Apirilaren 16a, larunbata]

11:30ean, KORRIKA TXIKI, Iturzaeta Herri eskolako haur eta helduekin.
Jarraian txistuarekin kanta batzuk joko dituzte giroa alaitzeko.
Ondoren, MARRAZKI TAILERRA izango da frontoian. Marrazkiak herria apaintzeko erabiliko dira.
14:30ean, HERRI BAZKARIA haur, gazte eta helduekin plaza berduran.
17:30ean, gazte-lekuan edo plazan PANTXIKA ETA TXINPARTA pailazoen ikuskizuna.
19:00etan, triki-poteoa AINHOA ETA LEIRE TRIKITILARIekin.
22:30ean, gaztetxian, KONTZERTUAK (GARABI + ….)
* Goizaldera (6ak inguruan) pasako da KORRIKA Getariatik Ondoren parte hartzaile guztientzat gosaria.

ARRAINAK, ITXASKIAK, IZOZTUAK
ELKANO ARRAINDEGIA
KAIA Telefonoa: 943 140 192 20808 GETARIA
@topagunea.com

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

Sare-konpontzaileak

Izaskun Larrañagak utzitako argazkia.

Martxoan moilara jaitsi den edonork hainbat sare-konpontzaile euren lanean buru-belarri ikusteko aukera izan du, baina ziur aski, gaurkoan txoko honetara ekarri dugun argazkiarekin alderik topatuko du, batez ere moila gainari dagokionez. Tamalez, argazkiko lagun bakarraren izena ezagutzen dugu, Pepita Isastirena hain zuzen ere; beraz, norbaitek argazkiko beste lagunak ezagutuz gero, eskertuko genuke Artzapeko lan taldeari jakinaraztea.

Atal honetan jartzeko moduko argazki zaharren bat baduzu,deitu 943000548 telefonora edo artzape@topagunea.com helbidera bidali.

GETARIARRON TOPAGUNEA
artzape
JARRI ZURE PUBLIZITATEA

zorion agurrak

Amaia Osa
Martxoak 12
Zorionak eta muxu handi bat gure etxeko printzesari familia guztiaren partetik!

Amets Aizpurua
Apirilak 17
Sei urte jada ! Zorionak gure printzeari etxeko guztien partetik. Muxu potolo bat eta ondo pasa zure eguna.

Ninbe Uranga eta Aiala Frias
Martxoak 16 eta 24
Zorionak gure bi neskei etxeko guztien partetik.

Nora eta Ane Azkue
Apirilak 2
Zorionak bikote! Zuen pastelen zain gauden bitartean, har ezazue muxu handi bana!
Artzapeko lan taldearen partetik.

Norbait zoriondu nahi izanez gero, argazkia bere testutxoarekin Txeruko postontzian utzi edo eta Eskualtxetara eraman. Gogoratu! bazkideok doan daukazue eta bazkide ez zaretenok 4 € ordaindu beharko dituzue argazki bakoitzagatik.

FULDAIN farmaziaren zaintza egunak: apirilaren 18tik 25era (biak barne)

EGIN ZAITEZ HARPIDEDUN

Bazkide-kuota: urtean 20 euro

artzape

Izen-deiturak:.....

Helbidea:.....

Herria:.....P.K.....Telefonoa:.....

Kontu zenbakia:.....

Sukurtsala:.....

Getariatik kanpo bizi bazara eta aldizkaria etxean jaso nahi baduzu, EGIN BAZKIDE eta bilaliko dizugu!